

2020KO OTSAILAREN 27AN BATZARRAK EGIN ZUEN BILKURAKO AKTA.-

Tolosako udaletxearen Pleno aretoan egin du bilera 2020ko otsailaren 27an, 18:07tan, TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEAREN Batzarrak, OLATZ PEON ORMAZABAL Lehendakaria mahaiburu delarik, eta horretara ondoren zerrendatuko diren udaletako alkate eta zinegotziak bertaratu dira:

BERTARATUAK:

BATZARRAREN LEHENDAKARIA (%0,31,50): Olatz Peon Ormazabal
ADUNAKO UDALA (%0,76): Josu Amilibia Alsua
ALEGIAKO UDALA (%2,78): M^a Aranzazu Irazusta Etxeberria
ALKIZAKO UDALA (%0,60): Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez
AMEZKETAKO UDALA (%1,51): Iñaki Amundarain Tolosa
ANOETAKO UDALA (%3,28): Pedro M^a Estanga Lasa
ASTEASUKO UDALA (%2,47): Aitor Usandizaga Izagirre
BALIARRANGO UDALA (%0,22): Andoni Olano Manzano
BERROBIKO UDALA (%0,97): David de Miguel Les
HERNIALDEKO UDALA (%0,50): Aitor Zubillaga Celaya
IKAZTEGIETAKO UDALA (%0,79): Bakarne Otegi Jauregi
IRURAKO UDALA (%3,00): Gorka Murua Makuso
LARRAULGO UDALA (%0,41): Aitor Biestegui Fiallegas
LIZARTZAKO UDALA (%0,97): Iñaki Azpiroz Beldarrain
OREXAKO UDALA (%0,20): Gurutze Etkezabal Iturrioz
VILLABONAKO UDALA (%9,49): Beatriz Unzué Esnaola

ETORRI EZ DIRENAK:

ABALTZISKETAKO UDALA (%0,52): Jon Zubizarreta Aldaia
ALBIZTURKO UDALA (%0,50): Iñaki Orbegozo Arrospide
ANDOAINGO UDALA (%23,58): Maider Lainez Lazcoz
BELAUNTZAKO UDALA (%0,39): Silvia Moneo Cid
IBARRAKO UDALA (%6,73): Igor Zapiain
LEABURU-TXARAMAKO UDALA (%0,61): Arkaitz Esnaola Huici
ORENDAINGO UDALA (0,35%): Eneritz Olano Iriarte

GAI ZERRENDA

Hona hemen bilerari dagokion Gai-zerrenda:

- 1. 2019ko abenduaren 18ko Batzarraren Akta onartzea.**
- 2. Lehendakariaren Ebazpenen berri ematea: LE20191218.037tik LE20200210.005ra.**
- 3. Tolosaldeko Mankomunitateak eta Tolosako Hiltegi Eskualdetarraren gestiorako udalerri mankomunitateak osatutako elkartearen Idazkari-**

Kontuhartzaile lanpostua hornitzeko lehiaketa arrunteko merezimendu espezifikoen eta epaimahaiaren osaketaren onarpena.

4. Tolosaldeko Mankomunitateak eta Tolosako Hiltegi Eskualdetarraren gestiorako udalerri mankomunitateak osatutako elkartearen Idazkari-Kontuhartzaile lanpostua hornitzeko 2020ko lehiaketa arruntaren oinarri espezifikoei sartzeari onartzea.

5. CESPAGR (Mutiloa) zabortearen itxieraren ondorioen berri ematea.

6. Galde-erreguak.

Mankomunitatearen Idazkari den Leire Arteaga Zumetak eman dio fede aktari, Gemma Eceiza Mankomunitateko teknikariaren aurrean.

Lehendakariak Altzo, Berastegi, Elduain eta Gazteluko ordezkariak gutunak aurkeztu ondoren eta Idazkariak estatutuaren 18.2 artikuluan diona egiaztatu ondoren, aipatutako udalerri hauen ordezkariak jarraian agertzen den moduan geratzen da:

ALTZOKO UDALA: Ordezkaria, Gurutze Etxezabal Iturrioz

BERASTEGIKO UDALA: Ordezkaria, Gurutze Etxezabal Iturrioz

ELDUAINGO UDALA: Ordezkaria, Gurutze Etxezabal Iturrioz

GAZTELUKO UDALA: Ordezkaria, Gurutze Etxezabal Iturrioz

Estatutuen 45. artikuluan xedatzen den bilerakideen kopurua bete denez lehenengo deialdian, Batzarra eratutzat jo da. Horrekin, gai-zerrendako gaiak aztertzerako jo dute bilerakideek.

1. 2019ko abenduaren 18ko Batzarraren Akta onartzea.

Izenburuan adierazitako akta ahobatez onartu da.

2. Lehendakariaren Ebazpenaren berri ematea: LE20191218.037tik LE20200210.005ra.

Mankomunitate honi subsidiarioki aplikagarri zaion apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.2 a) artikuluan adierazitako ahalmena gauzatzearren, eta Tokiko Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 42. artikuluan adierazitakoari jarraiki, Lehendakariak Batzarrari jakinarazi dizkio azken bileraz geroztik hartutako erabakia.

LE20191218.037

LE20191231.038

LE20200110.001

LE20200124.002

LE20200124.003

LE20200127.004

LE20200210.005

Batzarra jakinaren gainean geratu da.

3. Tolosaldeko Mankomunitateak eta Tolosako Hiltegi Eskualdetarraren gestiorako udalerri mankomunitateak osatutako elkartearen Idazkari-Kontuhartzaile lanpostua hornitzeko lehiaketa arrunteko merezimendu espezifikoen eta epaimahaiaren osaketaren onarpena.

Gaikuntza nazionalako Toki Administrazioako funtzionarioei gordetako lanpostu hutsak betetzeko urteroko lehiaketa arrunta dela eta, mota horretako lanpostuak hutsik dituzten udal eta mankomunitatek dagozkien oinarri espezifikoak onartu eta Gipuzkoako Foru Aldundiari helarazi behar zaizkio, 128/2018 Errege Dekretuaren 37. Artikulua.

Merezimendu ezberdinen balorazioa honela da:

Guztira: 30 puntu.

- Estatuko merezimenduak: %65; hau da, 30tik 19,5 puntu.
- Euskal Autonomia Erkidegoak zehaztu beharrekoak: %30; hau da, 30tik 9 puntu.
- **Merezimendu espezifikoak, udalak zehaztu beharrekoak: %5; hau da, 30tik 1,5 puntu.**

Ondoren oinarri espezifikoen proposamena azaltzen da:

2020ko lehiaketa arruntaren oinarri espezifikoak:

Toki entitatea: TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA ETA TOLOSako HILTEGI ESKUALDETARRAREN GESTIORAKO UDALERRI MANKOMUNITATEAK OSATUTAKO ELKARTEA
Aurreko urteko abenduaren 31n zenbatekoa zen biztanleria, 2.000 biztanle baino gehiagokoa ala gutxiagokoa? 2000 biztanle baino gehiagokoa
Lanpostuaren izena (1):Idazkari kontu hartzailea
Kodea:
Lanpostuaren azpieskala eta kategoria (2): Gaikuntza nazionala Idazkari kontuhartzailea
Destinoko osagarriaren maila: 25
Osagarri espezifikoaren zenbatekoa: Tolosaldeko Mankomunitatea: 30.784,36/urteko. Tolosako Hiltegi eskualdetarraren gestiorako udalerri mankomunitatea:
Hizkuntza eskakizuna: 4.H.E.
Derrigortasun data pasata al dago? Bai, 18/12/2019
Lanpostuaren jabeak deialdi hau argitaratu eta ondorengo sei hilabeteetan zehar

hartuko al du erretiroa? (3) EZ, LANPOSTU SORTU BERRIA DA.
Merezimendu espezifikoak (4): EZ
Merezimendu espezifikoak egiaztatzeko modua:
Lehiaketan parte hartzeko gutxieneko puntuak (5):
Oinarri espezifikoetan aurreikusten al da elkarrizketarik egitea? EZ
Aurreikusten al da zenbatekorik elkarrizketaren ondorioz egin beharreko joan-etorrien gastuak ordaintzeko?
Epaimahaiaren osaketa (6): - Epaimahaiburua: GAIKUNTZA NAZIONALA DUEN TOKI ADMINISTRAZIOKO FUNTZIONARIO BAT, DEITUTAKO LANPOSTUAREN KATEGORIA BEREKOA EDO HANDIAGOKOA - Epaimahaikideak: - EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAK IZENDATUTAKO KIDE BAT. - GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK IZENDATUTAKO KIDE BAT. - GAIKUNTZA NAZIONALA DUEN TOKI ADMINISTRAZIOKO FUNTZIONARIO BAT, DEITUTAKO LANPOSTUAREN KATEGORIA BEREKOA EDO HANDIAGOKOA. - Idazkaria: MAHAIKIDEETAKO BAT.

Gaia aztertu ondoren, batzarrak, aho batez erabaki du:

LEHENA.- 2020ko lehiaketa arruntan parte hartzeko oinarri espezifikoak onartzea, merezimendu espezifikoak jartzeari uko eginez.

BIGARRENA.- Lehiaketa arrunteko epaimahaiaren osaketa onartzea, oinarri espezifikoetan proposatutako kideez osatutakoa.

4. Tolosaldeko Mankomunitateak eta Tolosako Hiltegi Eskualdetarraren gestiorako udalerri mankomunitateak osatutako elkartearen Idazkari-Kontuhartzaile lanpostua hornitzeko 2020ko lehiaketa arruntaren oinarri espezifikoetan sartzea onartzea.

Gaikuntza nazionalako Toki Administrazioako funtzionarioentzat gordetako lanpostuak behin betikoz betetzeko modalitateak lehiaketa arrunta eta lehiaketa bateratua dira.

Lehiketa arruntean Estatuko Administrazioak finkatutako merezimendu orokorrak, autonomia erkidegoaren berezitasunei dagozkien merezimenduak eta interesatutako toki entitateak zehazten dituen berariazko merezimenduak baloratzen dira. Horri dagokionez, 7/1985 Legearen bigarren xedapen gehigarriare 8 zenbakiak ezarritakoari jarraikiz, guztira 30 puntu izaik, merezimendu orokorren gehiengo puntuazioa 19,50 (% 65); Euskal Autonomia Erkidegoak finkatu beharreko merezimenduenn gehieneko puntuazioa 9 puntu (%30); eta berariazko merezimenduei dagokiena berriz, 1,5 puntu (%5).

2020ko otsailaren 27ko batzarraren 3. Puntuan erabaki da Mankomunitateari dagozkion merezimendu espezifikoaren balorazioa: % 5, hau da, 1,5 puntu ez finkatzea eta lehiaketa arruntaren epaimahaiaren osaketa onartzea.

Guzti hauek ikusita, Batzarrari proposatzen zaio gaikuntza nazionalako Toki Administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostu hutsak izateagatik, 2020ko lehiaketa arruntan parte hartzea onartzea.

Gaia aztertu ondoren, Batzarrek, ahobatez,

ERABAKI DU

LEHENA.- Tolosaldeko mankomunitateak eta Tolosaldeko hiltegi eskualdetarraren gestiorako udalerrri mankomunitateak osatutako elkartearen Idazkari kontu hartzaile lanpostua hutsik izateagatik 2020ko lehiaketa arruntan parte hartzea onartzea.

BIGARRENA.- Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzea, aipatu lanpostua, Toki Administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostu hutsak behin betikoz betetzeko 2020an egitea dagokion deialdian sartzea.

5. CESP GR (Mutiloa) zabortearen itxieraren ondorioen berri ematea.

Teknikariak hitza hartu du adierazteko, Zaldibarko zabortearen gertatu den istripuarekin batera, Cespa GR Mutiloako hondakin ez arriskutsuen zabortearen itxi egingo dela 2020ko martxoaren 1ean, hango udalerriko udalak ukatu egin duelako bere zabalkuntza.

Itxiera honek eragin nabarmena izango du Tolosaldeko mankomunitatearengan, eskualdeko hondakin ugari bideratzen direlako Mutiloara. Zehazki:

- Garbigunetako obra hondakinak, altzariak, hondakin nahasiak.
- Industriegunetako errefusa.

Ondorioz, beste aukera batzuk bilatu behar dira zabor hauek bideratzeko.

Pasa den abenduan onartu zen 2020rako Aurrekontuan, ez zen aurreikusi itxiera hau, zabortegia kudeatzen duen enpresak ez duelako honen berririk eman 2020ko otsailaren 12arte.

18:15tan Zizurkilgo ordezkaria den Jose María Luengo Zapirain bertaratzen da.

Teknikariak batzarkideei banatu dien taulan, agertzen dira, alde batetik, 2019 urtean Mutiloako zabortegira eramandako tona kopurua eta bere kostua (4.150 tn eta 119.084 €), eta bestetik, 2020an aurreikusten diren hondakin hauen kudeaketa gastuak (485.378 €). Azken hauek kalkulatzeko, harremanetan egon gara beste kudeatzaile batzuekin, publikoak nahiz pribatuak: Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa (GHK), Urkiondo, Ekotrade, Arregi... Taulan agertzen dira bakoitzak eskeintzen dituen tarifak, zabor frakzioaren arabera.

Errefusa industrialaren kasuan, GHKk Zubietan duen instalazioan tratatzea proposatu da, beti ere etxetako errefusaren antzekoa baldin bada (asimilagarria). Honen harira, otsailaren 28an mankomunitateko kamioi batek Zubietako plantan deskargatuko du, zabor honek aipatutako baldintzak betetzen dituen hala ez ikusteko. Ez bada horrela, Urkiondo enpresaren bidez tratatu daiteke, Zaragozan duen zabortegira eramanez.

Adunako ordezkariak galdetu du zergatik ez den errefusa zuzenean Urkiondora ematen, tarifa merkeagoa eskeintzen badu. Teknikariak erantzun dio esanez hondakinen kudeaketan ezarritako hierarkia jarraitu behar dela, isurketa (zabortegian uztea) delarik azkeneko prozedura.

Lehendakariak hitza hartu du adieraziz iritzi ekonomikoa lehenesten bada, hondakinen hierarkiari buelta ematen zaiola, Zaldibarren gertatu den bezala.

Lizartzako ordezkariak jakin nahi du Zubietan zein tratamendu aplikatuko zaion errefusa industrialari. Adunakoak erantzun dio errausketa dela tratamendu bakarra.

Lehendakariak argitu nahi du errausketak balio erantsia daukala, energia sortzen baitu. Lizartzako ordezkariak, aldiz, ez dio zentzurik ikusten etekin bat ateratzeko ia bikoitza ordaindu behar izatea.

Adunako ordezkariaren ustez, errefusako tarifa oso altua da, sobredimensionatua dago, eta galdetzen du zenbat kostatzen den handik ateratzen den energiak. Gaineratu du eztabaidatu daitekeela luze eta zabal gai honen inguruan. Lehendakariak erantzun dio eztabaida hori, zorionez, gaindituta dagoela, Zubietako instalazioak erabili daitezkeelako gaur egun.

Adunako ordezkariak azpimarratu nahi du 2020 urtean, ia 400.000 € gehiago ordaindu beharko direla eskualdeko 28 udalerrien artean, soilik aipatutako hondakinen tratamenduan.

Teknikariak hitza hartu du berriz ere adierazteko gaur ez dela inongo erabakirik hartu behar, bakarrik datu ekonomikoez informatzea dela helburua, aldaketak datoz eta hondakinen tratamendu gaian, orokorrean. Horren adibide moduan, alde batetik, papera eta kartoiaren tratamendua da, 2019ko abendutik aurrera gastua suposatzen duelako. Eta bestetik, egurraren tratamenduak ere gastua dakar 2020 urtetik aurrera. Hau guztia kontuan harturik, onartu den aurtengo aurrekontuak ez du bere gain hartzen ia 500.000€-ko gastua.

Larraulgo ordezkariak jakin nahi du aldaketa hauek PIGRUG legea betetzen ote duten. Teknikariak erantzun dio etxetako hondakinetan horrela dela, baita garbigunetan ere, gaika jasotzen delako. Industriegunetan erdia gaika jasotzen da, gainontzekoa errefusa moduan jasotzen delarik.

Adunako ordezkariak galdetu du ea ezin den gaikako bilketa gehiago egin industriegunetan. Teknikariak erantzun dio bakarrik plastikoaren bilketan, baina garbia eraman behar dela tratatu ahal izateko, bestela ez dutelako onartzen. Nabarmendu nahi du ere pisu aldetik ez duela asko suposatzen, material arina delako.

Alkizako ordezkariak mahai gainean beste ikuspuntu bat jarri nahi du: Urkiondo arduratzen bada errefusa industrialara Zaragozako zabortegiraino eramateaz, kontuan hartu behar da ere garraio horrek suposatzen duena CO2 aztarnaren aldetik. Bere ustez, aztertu beharko litzateke enpresei zabor tasak igotzea, behintzat errefusaren bilketan. Teknikariaren iritziz, industriako tarifa bateratuak ezarri beharko lirateke, altxaldiak ere zenbatuz. Horrela, errefusa industrialara geroz eta gutxiago jasotzea lortuko litzateke, bere kostua merketuz.

Teknikariak proposatu du errefusa industrialean karakterizazioak egitea, bere garaian etxeko hondakinekin egin zen bezala, aztertu ahal izateko zenbat zabor kontsideratu daitekeen etxeko hondakinen antzekoa (asimilagarria). Baldintza hori beteko ez balitz, enpresa bakoitzak hartu beharko luke bere gain. Adunako ordezkariari ondo iruditzen zaio, kontuan harturik iaz 1.500 tona jaso zirelarik soilik frakzio honetan. Gaineratzen du enpresek ondo bereizi behar dituztela haien zaborrak, errefusaren bilketa penalizatuz tasen bidez. Beraz, fiskalitatea ere aztertu beharko litzateke.

Puntu honetan, Lehendakariak bilera amaitzea proposatu du, Tolosako Hiltegiko Mankomunitatearen bilera hasi behar delako.

Batzarra jakinaren gainean geratu da.

Eta bileraren helburua beteta, arratsaldeko seiak eta berrogei direnean, Lehendakariak bilera bukatutzat eman du eta nik, Idazkari naizenak, guztia ziurtatzen dut.

LEHENDAKARIA

IDAZKARIA

